# 2018KO APIRILAREN 26EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO EZ-OHIKO BILKURAREN AKTA

# ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 26 DE ABRIL DE 2018

**Akta zenbakia: 9**/2018
**Bilera eguna**: 2018-04-26
**Bilera mota:** ez-ohikoa
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordua:** 14:00-14:18
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº: 9**/2018
**Fecha**: 26-04-2018
**Tipo de reunión:** extraordinaria
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 14:00-14:18
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:**
Mikel Pagola Tolosa

**Zinegotziak:**
Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
Consuelo Frutos Gonzalez

**Idazkaria:**
Mateo Habibi Astigarraga López

**Reunidos:**

**Alcalde:**
Mikel Pagola Tolosa

**Concejales:**
Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
Consuelo Frutos Gonzalez

**Secretario:**
Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2018ko apirilaren 26ean, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 14:00etan, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ez-ohiko bilera egiteko.

En la villa de Urnieta a 26 de abril de 2018, siendo las 14:00 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión extraordinaria.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

**1.- 2018ko apirilaren 12ko akta onartzea.**

2018ko apirileko 12ko akta irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden edo etorri direnen aho bateko adostasunarekin, hau

**ERABAKI DU**:

**Lehenengoa eta bakarra.-** 2018ko apirilaren 12ko akta onartzea.

**1.- Aprobar el acta de 12 de abril de 2018.**

Tras la lectura del acta de 12 de abril de 2018, la Junta de Gobierno Local adopta, por unanimidad de los concejales presentes o asistentes el siguiente

**ACUERDO**:

**Primero y único.-** Aprobar el acta de 12 de abril de 2018.

**2.- Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera.**

**1. GERTAKARIAK**

1. Jarraian azaltzen den pertsonak eskatu du:

**2.- Solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal.**

**1.HECHOS**

1. Las persona que a continuación se especifica han solicitado:

| **Espediente zkia/** Nº Expediente | **Data/** Fecha | **Eskaeraren kontzeptua/** Concepto Solicitud |
|---|---|---|
| 1912 | 2017/02/20 | **Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera/** Solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal |

2. Gizarte langileak aipatutako espedienteari buruzko txostena egin du jarraian adierazitako datan eta adierazitako edukiarekin:

2. La trabajadora social ha emitido informe relativo a dicho expediente en las fecha y con el contenido indicado a continuación:

| **Espediente zkia/** Nº expediente | **Data/** Fecha | **Kontzeptua** Concepto |
|---|---|---|
| 1912 | 2018/03/26 | **Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera/** Solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal |

**2. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**LEHENA.-** Udal tutoritzapeko etxebizitzako araudian xedatzen den bezela, lekurik egonez gero, Urnietako Udalak hala erabakitzen badu, beste udalerri batean erroldatuta dauden pertsonek ere, zerbitzua erabili ahal izango dute. Horretarako, jasotako baldintzak bete beharko dituzte eta haien herriko udalak bere gain hartu beharko du ezarritako tasaren kostu osoa.

**BIGARRENA.-**Gizarte langilearen txostena ikusi ondoren.

Ikusita 2018ko apirilaren 9an Gizartekintzako Arduradunak egindako txostena.

Ikusita Herritargoko Batzorde Informatzaileak 2018ko apirilaren 16ean egindako bileran aldeko irizpena eman zuela.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan

**2. FUNDAMENTOS DERECHO**

**PRIMERO.-** Tal y como se recoge en el reglamento de la vivienda tutelada municipal. Si hubieran plazas libres, siempre y cuando así lo decida el Ayuntamiento de Urnieta, podrán acceder a este servicio, las personas empadronadas en otro municipio y que cumplan los requisitos. En ese caso, el Ayuntamiento correspondiente será quien derive el caso, asuma el pago del coste íntegro de la tasa establecida.

**SEGUNDO.-** Visto el informe de la trabajadora social.

Visto el informe emitido por la Responsable de Acción Social de 9 de abril de 2018.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Ciudadanía, en sesión celebra el 16 de abril de 2018.

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los

dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDO**

**Lehenengoa.-** Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera onartzea behin behineko izaerarekin, Villabonako Udalak ezarritako tasaren kostu osoa bere gain hartzen duen bitartean:

**Primero.-** Aprobar la siguiente solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal con carácter provisional mientras el Ayuntamiento de Villabona asuma el pago del coste íntegro de la tasa establecida:

| **Espediente zkia/** Nº expediente | **Kontzeptua/** Concepto | **Proposamen teknikua/** Propuesta técnica |
|---|---|---|
| 1912 | **Udal tutoritzapeko etxebizitzan plaza eskaera/** Solicitud de plaza en la vivienda tutelada municipal | **Amasa-Villabonako Udalak ordainduko duen tasa 847,16 €/ hileko/** La tasa que abonará el Ayuntamiento de Amasa-Villabona 847,16 €/mensual. |

**Bigarrena.-** Kontratua sinatu.

**Segundo.-** Formalizar el contrato.

**Hirugarrena.-** Eskatzaileari eta Amasa-Villabona Udalari erabaki honen berri ematea eta Gizartekintza eta Kontu-hartzailetza sailetara igortzea, dagozkion eraginetarako.

**Tercero.-** Notificar el presente acuerdo a la persona solicitante, al Ayuntamiento de Amasa-Villabona y trasladarlo a los departamentos de Acción Social e Intervención, para los efectos oportunos.

**3. Erreziboen deuseztapenak.**

**3. Anulación de recibos**

2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak bere 227. artikuluan ezartzen duenaren arabera akats materialak, gertatzezkoak edo aritmetikoak edozein momentutan, ofizioz edo interesatuak eskatuta, zuzenduko dira beti ere preskripzio epea igaro ez bada.

Según lo establecido en el artículo 227 de la Norma Foral General Tributaria 2/2005 de 8 de marzo de 2005, donde dice que se rectificará en cualquier momento, de oficio o a instancia del interesado, los errores materiales, de hecho o aritméticos, siempre que no hubiera transcurrido el plazo de prescripción.

Hori dela eta, jarraian adierazten den taulan azaltzen diren zerga kitapenak akats materialak egon direlako ofizioz deuseztea proposatzen da:

Por ello, se propone anular de oficio los recibos indicados en la tabla detallada a continuación por errores materiales en sus liquidaciones:

| Zergaduna Contribuyente | Zerga/tasa Impto/tasa | Erreziboa Recibo | Zenbatekoa Importe | Arrazoia Motivo | Oharrak Observaciones |
|---|---|---|---|---|---|
| 690 | Ibilgailuak/ IVTM | 2142/2018/01 | 75,27 | Akats materiala Error material | Kitapen berriak Nueva Liquid (0) |
| 4676 | Ibilgailua/IVTM | 4396 | 17,85 | Akats materiala Error material | Kitapen berriak Nueva Liquid (0) |
| **GUZTIRA / TOTAL** | | | **93,12** | | |

Ikusita Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak 2018ko apirilaren 23an egindako bileran aldeko irizpena eman zuela.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización, en sesión celebra el 23 de abril de 2018.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDO**

**Lehena eta bakarra**: 2018/005 baja dataren zerrendan azaltzen diren erreziboak deuseztatzea, guztira 93,12 €-koa.

**Primero y único**: Anular la relación de recibos de la data de baja 2018/005 por importe total de 93,12 €.

**4. Zorraren geroratze eskaera ebaztea.**

**4. Resolver la solicitud de aplazamiento de pago.**

Ikusirik 2018ko martxoaren 8an, NA 159***23C, udalarekin dituen zorren, 1.528,8 €, ordainketa urte betean atzeratzeko eskaera.

Vista la solicitud de aplazamiento de pago de la deuda de DNI: 159***23C con fecha de 8 de marzo de 2018 por importe de 1.528,8 € por un año.

Ikusirik udalaren Zergak Kudeatzeko eta Biltzeko Urnietako Udal Ordenantzan 15. artikuluan jartzen duenaren arabera: “*geroratzeak eskatzen direnean, behar besteko berme bat jarri beharko da, banku-abal moduan. Berme horrek tronkoa eta berandutze-interesak gehi bien baturaren % 25a estaliko ditu”*

Visto lo establecido en el art. 15 de la Ordenanza Reguladora de Gestión y Recaudación Municipal: *“cuando se solicite un aplazamiento, deberá aportarse garantía suficiente, en forma de aval bancario. La garantía cubrirá el principal y los intereses de demora, más un 25% de la suma de ambos”*

Ikusirik eskatzailearekin hitz egin ondoren ez dagoela inongo aukerarik zorra zatituta ordaintzeko edo geroratzea bermatzeko banku-abal moduan bermerik jartzeko.

Visto que tras hablar con el solicitante no hay ninguna opción de realizar el pago fraccionado o de garantizar el aplazamiento con aval bancario.

Ikusita apirilaren 17ko kontuhartzailearen txostena.

Visto el informe de la interventora del 17 de abril.

Ikusita Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak 2018ko apirilaren 23an egindako bileran aldeko irizpena eman zuela.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización, en sesión celebra el 23 de abril de 2018.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDO**

**Lehena**: **** izenean martxoaren 8an, egindako zorraren geroratze eskaera ez onartzea

**Primero**: Desestimar la solicitud de aplazamiento de pago presentada por **** el 8 de marzo de 2018.

**Bigarrena**: Ordaindu gabe dauden zorrekin premiamendu bidearekin jarraitzea.

**Segundo.-** Continuar con el procedimiento de apremio para la deuda pendiente.

**5. Zorraren zatiketa eskaera ebaztea.**

Ikusirik 2018ko apirilaren 16an, NA 151***55X, udalarekin dituen zorrak, 1.085,13 €, sei zatitan ordaintzeko egindako eskaera.

Ikusirik zatiketaren lehenengo ordainketa egin duela 185,13 €takoa.

Ikusirik udalaren Zergak Kudeatzeko eta Biltzeko Urnietako Udal Ordenantzan 13.7. artikuluan jartzen duena.

Ikusita apirilaren 17ko kontuhartzailearen txostena.

Ikusita Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak 2018ko apirilaren 23an egindako bileran aldeko irizpena eman zuela.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

**ERABAKITZEN DU**

**Lehena**: **** izenean, egindako eskaera ontzat ematea, eta zorraren zatiketa jarraian azaltzen den taularen arabera sei hilabetetan egitea, udalaren KUTXABANK ES12 2095 5068 63 1061730254 kontuan ordainketak eginez:

**5. Resolver la solicitud de fraccionamiento de deuda.**

Vista la solicitud de fraccionamiento de pago de la deuda de DNI: 151***55X con fecha de 16 de abril de 2018 por importe de 1.085,13 € en seis plazos.

Visto que ha realizado el primer pago del fraccionamiento por importe de 185,13€.

Visto lo establecido en el art. 13.7 de la Ordenanza Reguladora de Gestión y Recaudación Municipal.

Visto el informe de la interventora del 17 de abril.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización, en sesión celebra el 23 de abril de 2018.

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

**ACUERDO**

**Primero**: Estimar la solicitud de ****, y conceder el fraccionamiento del pago en seis plazos, mediante transferencia a la cuenta del Ayuntamiento de Urnieta en la entidad colaboradora KUTXABANK ES12 2095 5068 63 1061730254, de acuerdo a la siguiente tabla:

| Ordainketa data/ Fecha de pago | Zenbatekoa/ Importe | Argitalpenak/ Observaciones |
|---|---|---|
| 2018/04/16 | 185,13 | Ordaindua / Pagado |
| 2018/05/15 | 180,00 | |
| 2018/06/15 | 180,00 | |
| 2018/07/16 | 180,00 | |
| 2018/08/16 | 180,00 | |
| 2018/09/17 | 180,00 | |
| **GUZTIRA** | **1.085,13** | |

**Bigarrena**: Ezarritako epeetan ordaintzeko betebeharra betetzen ez badu, premiamenduzko bidea jarraituko da, ordaindu gabeko zorra ordaindu dadin.

**Segundo.-** Si la obligación de pago en los plazos establecidos se incumple, se seguirá la vía de apremio para que se cumpla con el abono de la deuda impagada

**6. Urnietako Udalaren lokal eta eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren luzapena.**

Mateo Astigarragak azaltzen du 2011ko Urnietako Udal Araudi Organikoaren arabera Tokiko Gobernu Batzarrera ekartzen diren gaiak, aldez aurretik dagokion Batzorde Informatzaileak diktaminatu behar dituela, baina salbuesten dela premiazko kasuetan TGBk hartu ditzazkeela dagokion Batzorde Informatzaileren irizpenik ez duten gaiei buruzko erabakiak, eta hartutako erabakiaren berri eman beharko zaio informazio batzordeari hurrengo bileran.

6. puntuari dagokionez, Zerbitzu eta Mantenuko Teknikariaren txostena azaltzen dela, non esaten den kontratu hau apirilaren 30ean bukatzen dela. Kontratu hau arautzen duen pleguetan bere iraupenaren luzapena aurreikusita dagoela baino erabakia hori kontratua bukatu baino lehenago hartu behar dela. Horren ondorioz premiazkoa dela puntu hau onartzea kontratu gabe ez geratzeko.

Consuelo Frutosek komentatzen du txostenenan kontratuaren balioan zifra batzuk ez daudela ondo iruditzen ziola.

Mateo Astigarragak erantzuten du, kontratuan azaltzen den zenbatekoa aurrekontuarekin lotzen dela, eta orduan zenbateko hori BEZa barne izan beharko lukeela.

Amaitzeko, Mikel Pagolak adierazten du Teknikariak egindako txostenean azaltzen diren bi kopuruak, BEZa barne bezela jarri behar direla, hau da, 2018ko urterako 172.549,36 € eta 2019ko urterako 86.274,68 € kopuruak, BEZa barne kontuan hartu behar direla.

Ikusirik Klausula Administratibo Partikularren Baldintza Agirietako 2. klausulak ezartzen duela kontratuaren iraupen epea 2 urtekoa izango dela, kontratua formalizatzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, bi aldeek adierazi eta adostutako luzapena izan dazakelarik. Kontratuaren iraupena guztira, luzapenak barne direla, ezin izango da 4 urte baino gehiagokoa izan.

Betearazpenaren hasieratik BI urte igaro direla ikusita, eta kontratua amaitu arte, urtebeteko bi luzapen falta direla, kontratuaren helburu den zerbitzua eskaintzea beharrezkoa eta egokia dela justifikatzen da.

**6. Prórroga del contrato de servicios de limpieza de edificios y locales municipales de Urnieta.**

Mateo Astigarraga explica que en el Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Urnieta se recoge que todos los asuntos que tengan que ser decididos por la Junta de Gobierno Local deberán ser previamente dictaminados por la correspondiente Comisión Informativa, salvo aquellos asuntos que por urgencia deban ser decididos por la JGL , de cuyo acuerdo se deberá dar cuenta en la siguiente reunión de la Comisión Informativa.

En referencia al punto nº 6, visto el informe del Técnico de Servicios y Mantenimiento, se observa que este contrato finaliza el 30 de abril. Añade que según los pliegos que rigen esta contratación, se contempla la prórroga del mismo, pero esa decisión debe ser tomada antes de su finalización. Por ello, se justifica la urgencia de toma de decisión de este punto.

Consulo Frutos comenta que le parece que las cifras del contrato que aparecen en el informe no son correctas.

Mateo Astigarraga responde que las cifras que aparecen en el contrato están unidas a la asignación presupuestaria, por tanto, deberían aparecer con el IVA incluído.

Para terminar, Mikel Pagola manifiesta que las dos cifras que aparecen en el informe del técnico deben aparecer con IVA incluido, esto es, para el año 2018 172.549,36 € y para el año 2019 86.274,68€ ambas con IVA incluido.

Visto que en la cláusula 2 de los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares se establece que el plazo de duración del contrato será de 2 años contados a partir del día siguiente al de formalización del mismo, siendo susceptible de prórroga anual expresa y mutuamente acordada, sin que la duración total del contrato, incluidas las prórrogas pueda exceder de 4 años.

Visto que han transcurrido DOS años desde el inicio de la ejecución, y que restan dos prórrogas de un año hasta la finalización del contrato, se justifica la necesidad e idoneidad de la continuidad en la prestación del servicio objeto del contrato.

Luzapena onartzeak 213.904,20 euroko zenbatekoa eskatzen du urtean BEZ gabe, jarraian zehazten diren modura:

2018 urtea: 172.549,36€-ko zenbatekoa guztira, %21eko BEZ barne zortzi hilabetez ordainduta, partida hauen kargu: 567, 630, 658, 677, 699, 700, 826, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2446, 2447, 2448, 2449, 2451, 2452 eta 2475.

.

2019 urtea: 86.274,68€-ko zenbatekoa guztira, %21eko BEZ barne lau hilabetez ordainduta, partida hauen kargu: 567, 630, 658, 677, 699, 700, 826, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2446, 2447, 2448, 2449, 2451, 2452 eta 2475.

Ikusirik **Alkateak** duela kontratatzeko eskumena, baldin eta zenbatekoa **ez bada** aurrekontuko baliabide arrunten %10 bai**no** handiagoa, eta, edonola ere, sei milioi eurotik gorakoa ez bada, urte anitzeko kontratuak barne, betiere lau urtetik gorakoak ez badira eta urte guztietako zenbatekoen baturak ez badu gainditzen ez adierazitako portzentaje hori, lehenengo urteko aurrekontuko baliabide arruntei dagokienez, eta ez adierazitako zenbatekoa ere. **Udalbatzak** izango du, kontratazio-organo gisa, Tokiko Erakundeak egiten dituen eta aurreko paragrafoan aipatu ez diren kontratuak egiteko eskumena.

Ikusirik, gure kasuan, 7/1985 Legeko 21.3. artikulua aplikatuz, alkateak **Tokiko Gobernu Batzarrari** eman ziola eskumen hori, beste hainbat eskumenekin batera, 2015eko ekainaren 29ko Dekretuaren bidez.

Ikusirik gaiari aplikagarri zaion Legedia:

- Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bateginaren 23 eta 303 artikuluak eta Bigarren Xedapen Gehigarria, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak onartua.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Ikusita 2018ko apirilaren 23ko Idazkaritzak egindago txostena.

La aprobación de la prórroga compromete el importe de 213.904,20 euros anuales sin el IVA, en los términos que se detallan a continuación:

Año 2018: Ocho mensualidades por importe total de 172.549,36 € IVA 21% incluido con cargo a las partidas: 567, 630, 658, 677, 699, 700, 826, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2446, 2447, 2448, 2449, 2451, 2452 y 2475.

.

Año 2019. Cuatro mensualidades por importe total de 86.274,68 € IVA 21% incluido con cargo a las partidas: 567, 630, 658, 677, 699, 700, 826, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2446, 2447, 2448, 2449, 2451, 2452 y 2475.

Visto que la competencia para contratar corresponde al **Alcalde** cuando su importe **no** supere el 10% de los recursos ordinarios del Presupuesto ni, en cualquier caso, la cuantía los seis millones de euros, incluidos los de carácter plurianual cuando su duración no sea superior a cuatro años, siempre que el importe acumulado de todas sus anualidades no supere ni el porcentaje indicado, referido a los recursos ordinarios del presupuesto del primer año, ni la cuantía señalada. Corresponde al **Pleno** las competencias como órgano de contratación respecto de los contratos no mencionados en el párrafo anterior que celebre la Entidad local.

Visto que en nuestro caso y en aplicación de lo establecido en al artículo 21.3 de la Ley 7/1985 el Alcalde delegó, junto a otras, esa competencia en la **Junta de Gobierno Local** mediante Decreto de fecha 29 de junio de 2015.

Vista la Legislación aplicable al asunto:

- El artículo 23, 303 y la Disposición Adicional Segunda del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.
- La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Visto el informe de Secretaría de 23 de abril de 2018.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDO**

**LEHENENGOA.** Urnietako eraikin eta lokalen Garbiketa Zerbitzuaren kontratua urtebetez luza dadin onartzea, espedientean adierazi bezala.

**PRIMERO.** Aprobar la prórroga del contrato de Servicio de Limpieza de edificios y locales de Urnieta por un plazo de un año en los términos establecidos en el expediente.

**BIGARRENA.** 213.904,20 euroko urteko gastua, BEZ gabe, baimentzea eta ebaztea, jarraian zehazten den bezala:

2018 urtea: 172.549,36€-ko zenbatekoa guztira, %21eko BEZ barne zortzi hilabetez ordainduta, 567, 630, 658, 677, 699, 700, 826, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2446, 2447, 2448, 2449, 2451, 2452 eta 2475 partiden kargu.

2019 urtea: 86.274,68€-ko zenbatekoa guztira, %21eko BEZ barne lau hilabetez ordainduta, 567, 630, 658, 677, 699, 700, 826, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2446, 2447, 2448, 2449, 2451, 2452 eta 2475 partiden kargu.

**SEGUNDO.** Autorizar y disponer el gasto de de 213.904,20 euros anuales sin el IVA, en los términos que se detallan a continuación:

Año 2018: Ocho mensualidades por importe total de 172.549,36 € IVA 21% incluido con cargo a las partidas 567, 630, 658, 677, 699, 700, 826, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2446, 2447, 2448, 2449, 2451, 2452 y 2475.

Año 2019. Cuatro mensualidades por importe total de 86.274,68 € IVA 21% incluido con cargo a las partidas 567, 630, 658, 677, 699, 700, 826, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2446, 2447, 2448, 2449, 2451, 2452 y 2475.

**HIRUGARRENA.** Kontratistari luzapena onartu dela jakinaraztea, beharrezko baliabideak adieraziz, egikaritu dadin.

**TERCERO.** Notificar al contratista la aprobación de la prórroga, con indicación de los recursos pertinentes, emplazándolo para la formalización de la misma.

**LAUGARRENA.** Lurraldeko Informazio Batzordeari horren berri ematea, egiten den hurrengo saioan.

**CUARTO.** Dar cuenta a la Comisión Informativa de Territorio en la siguiente sesión que celebre.

**7. Bestelakoak.**

No hay.

**7. Otros.**

Ez dago.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du Tokiko Gobernu Batzar hau, eta nik, Urnietako idazkariak, hala egiaztatu dut, Alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde da por finalizada la presente Junta de Gobierno y se levanta la sesión, de lo que yo, Secretario de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López

Idazkaria

Sin.: Mikel Pagola Tolosa

Alkate-lehendakaria